

Pilota jokoa eta euskal literatura

Gure literatura eskolatik irakatsi ezlik, ez da harritzekoa, ezer ez dugunaren usteak iraun ahal izatea. Eta gure herriko eruditoak ere uste horretan bizi dira. Hala dirudi.

Pilotarekin ari gara, balna inori pilota egiteko asmorik gabe (erdaraz, «sin hacer la pelota edo pelotilla»).

Gehienok dakigunez, deporteen bibliografian malsu dugu Joxe Iguaran tolosarra. Eta 1953.ean Tolosan izan zen uholdean agiri* eskoren galera izan bazuen ere, haren bibliografi artxiboa oso aberatsa da. Hain zuzen, 1965.ean Banco de Tolosa-k publikatu zuen liburuxka batean, «El juego vasco de la pelota. Autores antiguos y modernos que nos hablan de la pelota» lana argitara eman zuen, pilota nolabait alpatzen zuten egileak urtez urte zerrendan jarriaz. Ez da berriketa: Moises-enganetik hasi eta 1958.eko Lartigue-ganarte.

Zerrenda horretan, konturatzen garenez, erdaraz idatzi duten Euskal Herrikoak kontuan izan ditu Iguaranek; eta, inoliz euskarazko-rik azaltzen baditu, Iztueta edo Zaldubi adibidez, ba dirudi, holer berriak ere erdarazko egileengandik edo Itzulpenetatik izan dituela. Honegatik, egilearen ondorean Ipintzen duen urtetik konturatuko gara (liburuaren titulurik ez baitu jartzen), kontuan izan duen GIpuzkoako dantza gogoangarrien kondaira Itzulpena dela, hobeto esan, Itzulia izan zen lana dela, eta Itzulpenik izan ez duen Gulpuzcoaco provincialaren Condaira, 1847.ean argitaratua, ez dela halntzat hartzen. Eta lan honek, bere hirugarren zatia 8. kapituluan, pilotari buruzko gauza jakingarriak dakartza.

Arrazol beragatik ez dakar Axular, Gero (1643) liburuaren 49. kapituluan pilotari buruz iharduki arren. Ez eta, Axular baino lehen euskal literaturan, pilota alpatu zuten Etxeberri Ziburukoa eta Pouvreau (bere hiztegian honek).

Iguaranek, 1853.ean alpatzen du Gorosabel, balna ez urte be-rean Euskaldunac poema argitaratu zuen Hiribarren; eta honek, «Po-lota Yocoa» izenezko poema luze bat hasten du 211. orrialdean. Juan Antonio Mogelek berak ere, 1800.ean argitaratu zuen Confeslo ta comunloco sacramentuen gafiean Eracasteak liburuaren 63. orrial-dean alpatzen du pilota jokoa. J. B. Agirre Asteasukoak, Confesloco eta comunloco sacramentuen gafiean eracusaldiak (1803) liburuaren erakusaldian, zenbait aldiz dihardu pilota jokoa buruz.

Aztertzen* jarraituko bagina, oraindik, euskarazko egileen ar-tean, askoz ere izen gehiago aurkituko genituzke pilotaren alpamena egin dutenak, eta Iguaranen erroetan ez daudenak. Penagarria, hain-beste hizkuntzatako egileak alpatzen direlarik, gure herrian bertan, eta eruditoen artean galnara, euskaldun egileak ezagunagoak ez izatea. Berriz ere esango dute, ez dugula literaturarik.

Hau ez da, Iguaran pertsonalki salatzearren, eruditoak oro* bal-zik. Bide batez, hurrengorako, hutsa osatzeko bidea ematen dugu, norbaltek kontuan hartu nahi badu.